

## **Euskararen normalkuntza administrazioan: prozesu baten argi-ilunak**

*Gotzon Egia*

*Artikulu honek herri-administrazioan euskararen erabilera normaltzeko Euskadiko Autonomi Elkartean (hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan) egiten ari diren ahaleginak aztertzen ditu. Bost urteko epean, 1990-1995 aldirako jarritako helburuak nola ari diren betetzen aztertzen du, eta joan den bi urte t'erdian izandako emaitzarik nagusienak aurkezten ditu. Egilearen iritziz emaitza hauek ez dira onak; etorkizunean herri-agintarien jokabidea aldatu beharra dela uste du eta aldaketa horretarako proposamenak egiten ditu.*

---

*This article analyzes the efforts that are being made for the normalization of the use of the Basque language in the public administration in the Basque Country (that is, Araba, Bizkaia and Gipuzkoa). It analyzes how the objectives for the 1990-1995 five-year period are being fulfilled, and it presents the main results obtained in the last two and a half years. According to the writer of this article these results are not good. He considers it necessary to change the public authorities behaviour and he makes different proposals for these changes.*

*«Hizkuntza eskakizunen dekretuak aideratu zituen egin-asmo eta xedeak ari dira han-hemen gauzatzen: batzuetan egoki, besteetan motel-baldarka. Ukaezina da, hala ere, norbere gisara administrazio-erakundeek sartuta dutela goldea beren lurretan eta, gutxiago edo gehiago, marrazten hasiak direla euskararen erabileraren plangintzaren bide-lerroak administrazioan»*

*«Oraingoz -guk dakigula behintzat ez Nafarroan ez, are gutxiago, Iparraldean administrazioak ez dio EAEkoaren pareko jo daitekeen plan bati buru egin»*

Bi urte t'erdi luze joan dira Eusko Jaurlaritzak hizkuntza eskakizunen dekretua (urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, herri-administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko plangintzari buruzkoa) eman zuenetik.

Orduan dekretuak aideratu zituen egin-asmo eta xedeak ari dira han-hemen gauzatzen: batzuetan egoki, besteetan motel-baldarka. Ukaezina da, hala ere, norbere gisara administrazio-erakundeek sartuta dutela goldea beren lurretan eta, gutxiago edo gehiago, marrazten hasiak direla euskararen erabileraren plangintzaren bide-lerroak administrazioan.

Erdibidera helduak gara, dekretuak 1990-1995 bosturtea jarri baitzion epe administrazioari lehen aldikotz, eta heldua da beraz plan honen gauzatzeaz galdetzen hasteko tenorea: dekretuak jarritako gutxienerako mugak betetzen ari ote dira? Erakunde bakoitzak aurrez jarriak dituen helburuak erdieste-ko modurik izango ote du? Planaren «arrakasta» neurtzeko erakuslerik aski ote dugu? Galdera hauei, eta beste zenbaiti, erantzunik bilatzen saiatuko gara ondoren datozen hitzetan.

Esan beharrik ere ez dago, noski, egun Euskadiko Autonomi Elkartea (EAE) osatzen duten hiru herrialdeetako administrazio-erakundeei buruz bakarrik ariko garela, hala-beharrez, azalpen guztietan. Oraingoz -guk dakigula behintzat- ez Nafarroan ez, are gutxiago, Iparraldean administrazioak ez dio honen pareko jo daitekeen plan bati buru egin, eta zer esan askorik ez genuke, beraz, alderdi horiez.

Zer da orain bere erdibidea betetzen duen plan horren muina? Horra hitz bitan esan:

- administrazioak bere mende dituen lanpostu guztietan halako maila batean edo bestean euskaraz jakin beharra ezartzen du (hizkuntza eskakizuna, alegia);

- inguruko euskaldun biztanle kopuruaren neurrian, lanpostu horietan diren herri-langile batzuk ezinbestean erakutsi beharko dute, epe baten barruan (derrigortasun-data baten barruan, alegia), beren lanpostuan eskatutako maila horretara helduak direla;

- gainera, administrazioak aurrez izendatuak ditu eskakizun hauek bereziki bete beharreko esparruak (atal elebidun izendatutakoak, alegia), eta horiek dira gizarte zerbitzuak oro har, hala nola ongizatea, kultura, gazteria, kirolak, osasuna...

Anitz gauza gehiago esan daiteke, noski, plan honen gainean, baina lege-tresnen nahiz antolabidearen xehetasun

guztien berri jakin nahi duenak, aski luke aldizkari honen aurreneko alean argitara emandako dossier mardula berriro eskuetaratzea<sup>1</sup>. Hizkuntza eskakizunak oinarri dituelarik, plan honen sistema zein den ulertzea da beharrezkoena segidan datozen lerroen zentzuaz jabetzeko.

### Plana zenbakitan

Hizkuntza eskakizunen planaren zenbaki nagusiak aurkeztu behar dira lehen-lehenik, zenbaki horien bidez begiratu azkar batean ikusten ahal baita planaren hedakuntza eta eragin-indarra.

Segidan datozen datu gehienen iturria Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 1992ko azaroaren 24ean gobernu kontseiluari aurkeztutako txostena da<sup>2</sup>. Egia esan, berehala ikusiko dugun bezala, halako hedadura duen plan bati buruz harrigarria da zein datu-iturri gutxi dagoen: ez dago deus ere argitaraturik, eta administrazio-erakundeek dituzten laneko agiriak ia gordeka darabilzkitutela dirudi.

Hizkuntza eskakizunen dekretuak 25.398 langile dituzten administrazio-erakundeak harrapatzen ditu: udalak, diputazioak, gobernua eta guzti hauen mende diren erakundeak (ken irakaskuntza, osasun-zerbitzuak eta Ertzaintza). Langile guzti horiek, orain arte erakundeek onartutako planen arabera, honela banatzen dira:

---

1 Ikus Mikel Ugalde «Euskararen normalkuntza administrazioan» in Bat aldizkaria, 1 zk. 1991ko apirilkoa. Dena dela, planaren oinarri behinenak direnez, beude hemen lege-xedapen hauen aipamenak:

a) azaroaren 25eko 250/1989 Dekretua, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko plangintza arautzeari buruzkoa (EHAA, 1986ko azaroak 29);

b) urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko plangintza arautzeari buruzkoa (EHAA, 1989ko urriak 27);

d) urriaren 9ko 264/1990 Dekretua, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako sailburuarena, lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunen derrigortasuna zehazteko irizpideak finkatzeari buruzkoa (EHAA, 1990eko urriak 26).

2 Txosten horren izenburua Informe sobre el proceso de normalización lingüística de las administraciones públicas vascas da. Ziurrenik izango da euskarazko ordaina, baina gaztelerazko hori da eskuartean erabili dugun bakarra.

*«Halako hedadura duen plan bati buruz harrigarria da zein datu-iturri gutxi dagoen: ez dago deus ere argitaraturik, eta administrazio-erakundeek dituzten laneko agiriak ia gordeka darabilzkitutela dirudi»*

*«Badira oraindik beren lanpostuetan hizkuntza eskakizunik ezarri gabeko udalak. Ez dira, itxuraz, asko, baina EAeko populazioaren %10a osatzen dute: udal haundi samarrak dira, beraz, plana oraino onartu ez dutenak»*

### Planaren ezarpena

Administrazioko langileekiko (25.398)

*«Bistan da derrigorrez bete behar diren hizkuntza eskakizun gehienak, hiru laurden baino gehiago, administrari eta teknikarien artean daudela banatuta. Oso gutxi dira derrigorrezkoak behe-mailako lanpostuetan, gutxiago oraindik administrazioko goi-mailako arduradunenetan»*

Iturria: HPIN, Eusko Jaurlaritza

*«7.922 herri-lanpostutan derrigor bete beharreko hizkuntza eskakizuna ez da, zinez, ahuntzaren gauerdiko ezstula. Euskal administraziolari bere antolakuntza eta dirubideetan ahalegin handia dakarkio betebeharrori aurre egiteak»*

Zer esan nahi du «kanpoan» den %5,6 horrek? Badirela oraindik beren lanpostuetan hizkuntza eskakizunik ezarri gabeko udalak. Ez dira, itxuraz, asko, baina EAEko populazioaren %10a osatzen dute: udal haundi samarrak dira, beraz, plana oraino onartu ez dutenak.

Bistan denez, ez dute langile guzti-guztiek ezinbestean erakutsi beharko beren lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren mailara helduak direnik: %31,2k bakarrik dauka betebeharrori 1990-1995 aldi honetan. Beraz, planak eragin zuzen eta garbia 7.922 herri-lanpostutan izango du.

Jakina denez, lau hizkuntza eskakizun (maila tipienetik hasita, 1,2,3 eta 4) definitu zituen dekretuak. Derrigortasuna ez dago hizkuntza eskakizun guztietan hainbanatuta:

## Derrigorrezko hizkuntza eskakizunak

Lanpostuak guztira: 7.922

*«Zenbat dira salbue-  
tsitako langileak eta  
hutsik diren lanpos-  
tuak? Nork jakin:  
hauei buruz ez dago  
datu ofizial bat bera  
ere... Gonbarazioa  
egiteko, Gipuzkoako  
Foru Aldundian  
derrigorrezko  
hizkuntza eskakizuna  
duten lanpostu  
guztietarik oraintxe  
%15 salbuetsirik  
daude eta %31  
hutsik»*

Iturria: HPIN, Eusko Jaurlaritza

Bistan da derrigorrez bete behar diren hizkuntza eskakizun gehienak, hiru laurden baino gehiago, administrari eta teknikarien artean daudela banatuta, halako lanpostuak baitira 2. eta 3. eskakizuna dutenak. Oso gutxi dira derrigorrezkoak behe-mailako lanpostuetan (1. hizkuntza eskakizuna), gutxiago oraindik administrazioko goi-mailako arduradunenetan (4. hizkuntza eskakizuna).

Jakina, betebeharrak guzti hauek ez dira goizetik arratsera azken burura eramatekoak. Oraingo plana bost urtetarakoa denez, urtez urte modu orekatuan dira betetzekoak derrigor-tasun guzti horiek.

Euskaldun populazioaren proportzio desberdinean, herrialde bakoitzean derrigor bete beharreko hizkuntza eskaki-

*«Oraino plana  
onartu gabeko  
udalak Bizkaiko  
Ibar-Ezkerraldekoak  
omen dira, nagusiki.  
Ezin ulertuzkoa da  
guztiz erdalduna den  
biztanle kopuru  
handia duten udal  
horiek plan honen  
bazter gelditzea.  
Utzikeria poli-  
tikoaren historian  
zaila izango da, ziur  
aski, halako errakun-  
tzarik bilatzea»*

---

3 Datu hau ez da ofizialki inon ageri, baina erraz antzeman daiteke datu orokorrak ikusita eta aldizkari ofizialek udalez udal planak onartzeko argitaratutako erabakiak kontuan izanda.

zunen neurria, baita ere, desberdina da:

**Derrigorrezko hizkuntza eskakizunak herrialdeka**

*«Datu hauetatik bat gogoan gorde beharko genuke: lan arazoengatik eskolak utzi behar izandako %17,9 horrena. Azpimarratzekoa da, bestalde, ikastaroa utzitako guztietatik lan arazoek eragindakoak %63,6 direla Araban, %43,2 Bizkaian eta %26,6 Gipuzkoan. Horrek bere esanahia dauka, zalantzarik gabe, han-hemengo administraziooko sail eta zerbitzuetako arduradunen jarreraz»*

Iturria: HPIN, Eusko Jaurlaritza

Lehen adierazitako beste kontu bat ere argitzen du, bide batez, aurreko grafiko honek: Bizkaikoak dira oraindik planik onartu ez duten udal haundi samar horiek.

**Planaren hedakuntzaren mugak**

Begiratu hutsean geldituz gero, 7.922 herri-lanpostutan derrigor bete beharreko hizkuntza eskakizuna ez da, zinez, ahuntzaren gauerdiko eztula. Euskal administrazioari bere antolakuntza eta dirubideetan ahalegin handia dakarkio betebeharrak horri aurre egiteak.

Hala ere, zenbaki horri bere gordina zertxobait kentzen dioten bi faktore izan behar ditugu gogoan:

- salbuespenak: dekretuak norbere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna derrigor bete behar izateaz salbuesteko egoera

*«Lan-maila teknikoetan eta zerbitzuetako arduradun-mailatan (3 eta 4. hizkuntza eskakizunak, alegia) emaitzak batez bestekoaren azpitik gelditu dira beti, eta badirudi joera gero eta beheranzkoagoa dela hizkuntza eskakizun hauetan»*

---

4 Joseba M. de Zubia Lehendakariak, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuari Eusko Legebiltzarrean egin zizkieten lau galderen erantzunetatik hartuak daude datuok.

batzuk jarri zituen (nagusiki, 45 urtez goiti izatea); egun, plana onartuta duten erakunde guztietan langilegoaren ehuneko jakin bat salbuespen horretara bildua dago;

- hutsik diren lanpostuak: lanpostu horietan derrigorrezko hizkuntza eskakizunak ez du indarririk izango langileren bat bertaratu artean; orduan, lanpostu horren jabe egin nahi duenak erakutsi beharko du eskakizunaren maila baduela.

Zer esan nahi dute bi faktore hauek batera hartuta? Zenbat dira salbuetsitako langileak eta hutsik diren lanpostuak? Nolako eragina dute plan guztiaren baitan? Nork jakin: hauei buruz ez dago datu ofizial bat bera ere... Gonbarazioa egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundian derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostu guztietarik oraintxe %15 salbuetsirik daude eta %31 hutsik.

Errazagoa da jakiten oraino plana onartu gabeko udalen eragina: lanpostu guztien %5,6a da. Baina kasu: Bizkaiko Ibar-Ezkerraldeko udalak omen dira, nagusiki, egoera horretan daudenak<sup>5</sup>. Hori hala baldin bada, eragin koantitatibo mugatuaren gaineratik (planez kanpo dagoen 1.423 langile kopurua ez da hutsaren hurrengoa) legoke eragin koantitatibo handiagoa. Izan ere, dekretuaren izpiritua onartuta ere (plana nork bere inguruko euskaldun populazioaren arabera moldatu beharra), ezin ulertuzkoa da guztiz erdalduna den biztanle kopuru handia duten udal horiek plan honen bazter gelditzea. Utzikeria politikoaren historian zaila izango da, ziur aski, halako errakuntzarik bilatzea.

Bidezkoa litzateke, bestalde, gertakari larri honen esanahi politikoa gehixeago ikertzea, Ibar-Ezkerraldeko udal handietan nagusi diren alderdi politikoak zein diren kontuan izanda.

### Hizkuntza eskakizunak ezarri bidean

Hizkuntza eskakizunen inguruan hezurmamitu nahi den planaren mugak ikusi ditugu. Baina, nola ari dira gauzak gertatzen oraingoz? Erdibide honetara helduak garelarik, administrazio-erakundeek egindako ahalegin haundi ala txikiaren emaitzarik ba ote dago?

Berriz ere esan beharra daukagu: datu gutxi, benetan gutxi, dago honetaz; segidan azalduko ditugun apurrak norberaren baratzean moldatutakoak eta administrazioan ditudan lagu-

*«Benetan kezkatzen  
koa da, bereziki, 3.  
hizkuntza eskakizun-  
naren egiaztapenak  
hartu duen bidea.  
Hizkuntza eskakizun  
honetan huts egiteak  
administrazioan  
euskararen nor-  
malkuntzak hartu  
duen sistema osoa  
kolokan jar dezake»*

*«Dekretu-asmoak  
hizkuntza eskakizun-  
nen derrigortasunaz  
salbuetsirik izateko  
bidea lasaiagotu egin  
dezake»*

<sup>5</sup> Lerro hauek idazterakoan laugarren deialdiak hasia du bere bidea; ikus EHAA, 1993ko martxoak 26.

nei erreguka kendutakoak dira.

Bi bide ditugula iruditzen zait hizkuntza eskakizunak ezar-  
tzen hasi zirenez geroztik ibilitako bidea nolakoa izan den  
ikasteko:

*«Luzapen-sistema bat  
ezarriko du dekre-  
tuak; horrela,  
norbere lanpostuaren  
hizkuntza eskakizuna  
ez baina aurrekoa  
egiaztatuta duenak,  
urtebete edo bi  
urteko luzapena izan  
dezake»*

- euskara ikasi edo hobetzeko ikastarorik egin izan duten  
herri-langileek nolako emaitzak lortu dituzten

- beren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko  
azterketetan parte hartu izan duten herri-langileek nolako  
emaitzak lortu dituzten.

Herri-langileek euskarako ikastaroetan izan dituzten emai-  
tzen gainean zinez datu gutxi dago, eta direnak 1991-1992  
ikasturtera mugatzen dira<sup>4</sup>. Gainera, datu horietan ez da  
ikastaro amaierako ebaluaketaren emaitzarik erakusten; doi-  
doiez, ikastaroa hasitakoetatik amaiatutakoen eta eskolak  
utzitakoen berri ematen da:

#### **Euskarako ikastaroetan ari izandako herri-langileak**

1991-1992 ikasturtea

*«Plana onartuta  
duten erakundeetako  
batzuk zuzen-zuzen  
doaz porrot egitera:  
erdibidera iritsiak  
garelarik, edo  
hizkuntza eskakizun-  
en aplikazioan  
orain artean hartu-  
tako erabakien  
izpiritua goitik  
behera aldatzen dute,  
edo garbi dago udal  
eta diputazio askok  
ez duela behar lukeen  
mailaren laurdena  
ere erdietsiko»*

A = ikastaroa amaitutakoak 3130 (%68,4)

B = ikastaroa amaitu gabeak lanagatik 819 (%17,9)

C = ikastaroa amaitu gabeak bestelakoagatik 625 (%13,7)

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Datu hauetatik bat gogoan gorde beharko genuke: lan  
arazoengatik eskolak utzi behar izandako %17,9 horrena.

Jende kopuru benetan handia da, ulertu beharra baitago langile horiek ez zutela ikastaroa beren gogoz utzi, nork bere laneko arduradunen aginduz edo baizik. Azpimarratzekoa da, bestalde, ikastaroa utzitako guztietatik lan arazoek eragindakoak %63,6 direla Araban, %43,2 Bizkaian eta %26,6 Gipuzkoan. Horrek bere esanahia dauka, zalantzarik gabe, han-hemengo administrazioko sail eta zerbitzuetako arduradunen jarreraz.

Bestalde, herri-langileek norbere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketetan izandako emaitzak nolakoak izan diren arakatu genezake. Bost urteko plangintzaldi hau hasi zenez geroztik hiru azterketa-deialdi orokor<sup>5</sup> izan dira EAEko administrazio-erakunde guztietako langileentzat. Emaitzak honelakoak izan dira hizkuntza eskakizunen arabera:

#### **Hizkuntza eskakizunen egiaztapenaren bilakaera**

1991-1992 bitartean gai izandakoak hartuta

*«Ez da aski urtean herri-langileak euskalduntzen erabilitako diruak nabarmentzea aldi behin egunkarietan edo Legebiltzarreko batzorderen batean. Guzti hori bitartekoan esparrura mugatzen da. Hemen, zurikeriak bazter utzirik, administrazioa elebidunagoa ote den neurtu beharko litzateke»*

Iturria: HAEE-IVAP, Eusko Jaurlaritza

Grafiko hau ikusita, bi ondorio gelditzen dira begi bistan:

*«Zertarako nahi  
dugu halako edo  
bestelako eskakizuna  
gainditu duen  
horrenbeste langile,  
beren lana lehen  
bezainbatean erdara  
hutsez egiten jarraitu  
behar baldin badute?  
Administrazioaren  
ihardunetan euskara  
erabilarazteko  
programak gutxi  
dira, eta daudenak  
oso mugatuak dira  
hedaduraz eta  
eragin-indarrez.»*

- nork bere lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzea «behetik gora» datorren gertakaria da, hau da, lan-maila apalenetatik (1 eta 2. hizkuntza eskakizunak) ardurua haundiena duten mailetara (3 eta 4. hizkuntza eskakizunak)

- lan-maila teknikoetan eta zerbitzuetako arduradun-mailatan (3 eta 4. hizkuntza eskakizunak, alegia) emaitzak batez bestekoaren azpitik gelditu dira beti, eta badirudi joera gero eta beheranzkoagoa dela hizkuntza eskakizun hauetan.

Benetan kezkatzekoa da, bereziki, 3. hizkuntza eskakizunaren egiaztapenak hartu duen bidea. Gogoan izan behar da hizkuntza eskakizun honetan daudela unibertsitate-mailako titulazioa behar duten lanpostu gehienak, hau da, administrazioaren iharduna mugiarazten duten lanpostuak. Hizkuntza eskakizun honetan huts egiteak administrazioan euskararen normalkuntzak hartu duen sistema osoa kolokan jar dezake.

### **Hizkuntza eskakizunak malgutze bidean**

Joan den neguaren amaieran, egunkari eta gainerako hedabideek Eusko Jaurlaritzan osatzen duten bi alderdien asmoa haizatu zuten: administrazioa hizkuntza eskakizunak ezartzeko era eta epe-mugak malgutuko dituen dekretu berriren bat onartzekoa. Aitortu beharra dago, gainera, hautsak nahikoa harrotu zituela, baita gobernuak arteko giroa gaiztotu ere, dekretu horren ezbaia.

Aldizkari hau inprentarako bidean delarik, dekretu-asmo horren behin-betiko idazmoldearen berri zabaldu da: administrazioak Funtzio Publikoaren Kontseiluari aurkeztu dio, eta haren baietza jaso ondoren, Eusko Jaurlaritzak aurki onartuko omen du. Lerrook argitaratzen direnerako, beraz, nahi duenak ikusi ahal izango du dekretua aldizkari ofizialean.

Zer dio gobernuak diren alderdiek adostasunez onartutako dekretu horrek? Horra labur esan:

- hizkuntza eskakizunak egiaztatzea: orain arte egiaztapen-azterketak HAEE-IVAPek bakarrik egiten ahal zituen; dekretua onartzen denean edozein administrazio-erakunde izan daiteke bere langileriaren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketaren dei-egile

- salbuespenak: hizkuntza eskakizunen derrigortasunaz salbuetsirik izateko bidea lasaiagotu egin daiteke

- egiaztapena lortzeko epea: luzapen-sistema bat ezarriko du dekretuak; horrela, norbere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna ez baina aurrekoa egiaztatuta duenak, urtebete edo bi

urteko luzapena izan dezake

- egiaztapenaren derrigortasuna: nahiz derrigorrezko izan, 4. hizkuntza eskakizuna duten langileei ez zaie egiaztatzerik eskatuko 1995a aurretik; hirugarrena egiaztatzea aski izango dute

- egiaztatu gabekoak: hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketa egin eta gainditzen ez dutenek bigarren aukera izango dute, hurrengo sei hilabeteen barruan.

Jakina, dekretu-asmo honek beste hamaika xehetasun gehiago ere badauka, baina aurreko bost puntuotan haren edukiaren alderdi nabarmenenak jasota daude. Azken zehaztasun bat ere esan behar da: aldibaterako xedapenetan, dekretu-asmoak aldizkari ofizialean argitaratu bezain laster jartzen du bere balio-indarra, bereziki derrigortasun-epeak luzatze kontuetan.

#### **Hizkuntza eskakizunak arrisku bidean**

Administrazioko lanpostuetako hizkuntza eskakizunak ezartzeko lanetan modu bateko edo besteko ardua eta erantzukizuna dugunotako askok kezka betetik ikusten dugu datozen urteetako etorkizuna. Pozak txoratzeko daturik ez daukagu, egia esan.

Lehen-lehenik, administrazio-esparruko hizkuntza normalkuntzaren kontrol exekutiboa oso eskasa izan da orain arte. Alde batetik, lanpostuen hizkuntza eskakizunak onartu ere egin ez duten erakundeak daude; aurretik hitz eginak gara erakundeon ezaugarriez eta kokapenez. Beste aldetik, plana onartuta duten erakundeetako batzuk zuzen-zuzen doaz porrot egitera: erdibidera iritsiak garelarik, edo hizkuntza eskakizunen aplikazioan orain artean hartutako erabakien izpiritua goitik behera aldatzen dute, edo garbi dago udal eta diputazio askok ez duela behar lukeen mailaren laurdena ere erdie-tsiko.

Bitarteko ugariak daukate jarriak herri-administrazioek plan honetan; hori ez dago ukatzerik. Baina jende askorengan eragina daukaten halako planetan maiz gertatu ohi den bezala, helburuen lekuan bitarteko horiek jarri dira: iduri luke hizkuntza normalkuntzaren alor honetan administrazioaren zeregin bakarra hizkuntza eskakizunen derrigortasunak eta epeak betetzea dela; ez behintzat administrazio elebiduna lortzea, hau da, erdaraz bezala euskaraz ere lan egingo duen administrazioa.

Ez da aski urtean herri-langileak euskalduntzen erabilitako

*«Zaila da hizkuntza eskakizunen plana bide onetik doanik esatea. Badago, egon ere, gauzak ederki asko egiten ari den udalik. Baina horrek ez die deus kentzen batez besteko datu orokorrei. Gauzak horrela direlarik, Eusko Jaurlaritzak onartu asmotan duen dekretuak ez du sakoneko arazorik konponduko: gehie-nez ere, geroratu egingo ditu»*

diruak nabarmentzea aldi behin egunkarrietan edo Legebiltzarreko batzorderen batean. Guzti hori bitartekoen esparrura mugatzen da. Hemen, zurikeriak bazter utzirik, administrazioa elebidunagoa ote den neurtu beharko litzateke: zenbat eta nolako zerbitzuak eskaintzen ote dituen euskaraz; zenbat eta nolako langileak ari ote diren beren ihardunean euskaraz; zenbat eta nolako administrazio-guneak ote diren helburu horiek lortzeko arrasto onean daudenak. Gainerakoan, norberaren kontzientzia-lasaigarriak bilatzen ihardutea litzateke.

Bestalde, ahalegin gutxi egiten da hizkuntza eskakizunak bete eta egiaztatu ondorengo egoeraz. Zertarako nahi dugu halako edo bestelako eskakizuna gainditu duen horrenbeste langile, beren lana lehen bezainbatean erdara hutsez egiten jarraitu behar baldin badute? Administrazioaren ihardunetan euskara erabilarazteko programak gutxi dira, eta daudenak oso mugatuak dira hedaturaz eta eragin-indarrez. Guztira, EAE osoan hamarka langile gutxi batzuk izango dira halako erabilera-programatan sartuak direnak; ttantta bat itsasoan.

*«Edo herri-erakundeen kudeaketa politikoaren ardura dutenek beren erantzunkizunak aintzat hartzen dituzte, edo hizkuntza eskakizunen plana asmo onen ganbarara joango da laster»*

Orain arteko emaitzen argitan, zaila da hizkuntza eskakizunen plana bide onetik doanik esatea. Badago, egon ere, gauzak ederki asko egiten ari den udalik, eta batz besteko emaitzetan bere burua isladaturik ikusiko ez duenik. Ez da faltako, gainera, zeinek erakutsi eta nabarmendua adibide on horiek. Baina horrek ez die deus kentzen batez besteko datu orokorrei.

Gauzak horrela direlarik, Eusko Jaurlaritzak onartu asmatan duen dekretuak ez du sakoneko arazorik konponduko: gehienez ere, geroratu egingo ditu. Izan ere, dekretu horren eraginik handiena derrigorrezko hizkuntza eskakizunen egiaztapen-epeak luzatzea izango da. Zertarako behar du denbora luzeagorik planaren helburuak betetzeko asmorik ere ez daukan erakunde batek? Susmoak erraz piztuko ditu, gainera, horrenbeste hilabetetan aldizkari ofizialean argitaratzeko edukitzeak; askok pentsa dezake, esate baterako, udaren zai ote diren, 1992-1993 ikasturtea amaitu eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeke azterketetan aurreko emaitzak zertxobait hobetzen diren edo.

Erdibidera helduak garelarik, behar luke administrazioak pausaldi bat egin eta egindako urratsak aztertu. Neurri zorrotzak hartu nahi balitu -eta baluke hartarako egokierarik- nire ustez bost oinarri hauek izan beharko litzuzke gogoan:

-Arduradun politikoen erantzukizuna: euskal administra-

zioaren hizkuntza normalkuntza ez da erabaki administratibo soilen indarrez, berez etorriko; edo herri-erakundeen kudeaketa politikoaren ardura dutenek beren erantzunkizunak aintzat hartzen dituzte, edo hizkuntza eskakizunen plana asmo onen ganbarara joango da laster. Kontu honetan honez gero argi asko dago hizkuntza politikarik ez izatea (hizkuntza eskakizunak onartu ez dituzten Bizkaiko udal horien gisara) euskararen normalkuntzaren aurkako politika jakin eta zehatza dela.

-Adostasun parlamentario eta sindikala: era berean, argi dago alderdi politikoen erantzukizuna epela izango dela hizkuntza eskakizunen sokaren atzetik datorren planaren inguruan adostasun sendo eta iraunkorra lortzen ez badu Jaurlaritzak. Akordio nazional bat behar dugu, ez bakarrik helburuetan, ezpada bitartekoetan ere. Ezin dugu luzaz iraun Euskararen Legea bai, hura onartzen dela, baina haren interpretazioan berriz adostasunik ez dagoela esanez. Era berean, herri-administrazioko sindikatuetik solasbideak zabaldu eta finkatu behar dira, oinarrizko adostasun hori lan-arazoaren eremura ere ekartzeko.

-Hizkuntza normalkuntzaren gastuen kontrola: hizkuntza eskakizunen aitzakitan dirutzak xahutzea ezin dugu beste gabe onartu, gehien gastatzen duen erakundea euskaltzaleena delakoan. Euskararen normalkuntzak bere dirubideak behar ditu, ez gutxiago, ezta gehiago ere; ba ote daki administrazioak, esate baterako, zenbat pezeta gehiago beharko dituen hizkuntza eskakizunen epeak luzatuko dituen dekretu-asmo horren gauzatzeko? Dirua eta lana eskas diren garaiotan, herri-ondasunak kontrolik gabe xahutzera doazen ekintzak ez dira erraz onartzekoak, eta alderdi honetatik ikusita, baita ere, dekretu hori txarra da.

-Erabilera-programak: herri-administrazioetan hizkuntza eskakizunak egiaztatzeke egiten ari diren ahalegin guztiak hari bakarrez josi behar dira, euskararen erabilera sustatuko duten programen hariz, alegia. Ez dezagun ahantzi: ezer gutxitarako ditugu herri-langile «agiridunak», administrazioaren alorrean euskaraz ihardungo duten gunetako tinko eta mardulak osatzeko ez bada. Plan honen hondamendia litzateke bosturteko hau amaiturik, langile multzo handi batek bere hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea, baina administrazioaren ihardunak lehengo arrasto berberetik jarraitzea. Premiazko zeregina da, ondorioz, orain artean sortu izan diren erabilera-programak aztertu, hobetu eta hedatzea.

-Plana neurtzeko neurpideak: hizkuntza eskakizunen ingu-

*«Akordio nazional bat behar dugu, ez bakarrik helburuetan, ezpada bitartekoetan ere. Era berean, herri-administrazioko sindikatuetik solasbideak zabaldu eta finkatu behar dira, oinarrizko adostasun hori lan-arazoaren eremura ere ekartzeko»*

*«Dirua eta lana eskas diren garaiotan, herri-ondasunak kontrolik gabe xahutzera doazen ekintzak ez dira erraz onartzekoak, eta alderdi honetatik ikusita, baita ere, dekretu hori txarra da»*

*« Premiazko zeregina  
da, orain artean sortu  
izan diren era-  
bilera-programak  
aztertu, hobetu eta  
hedatzea »*

ruan datu-eskasia kritikatu dugu gorago. Horrenbeste jenderi erasaten dion kontu batean, oinarrizko zenbakiak bederen eskura beharko lituzke edonork, luzaz bila ibili behar izan gabe; hori alde batetik. Baina horrez gain, planaren emaitzak baldin badira ebaluatu behar direnak, ezin ditugu gehiago askietsi emaitzen ez baina planaren kudeatzaileen borondatearen erakusle diren datuak: eralgitako milioika pezetak, edo ikastaroetan ari izandako herri-langileak, edo halako eskakizuna gainditutakoen kopuruak, denak behar ditugu, baina horrek ez digu erakusten emaitzen on-txarrik. Geure burua luzaroan engainatu nahi ez badugu, premi-premiazkoak dira hizkuntza eskakizunen planaren emaitzak ebaluatzeko neurpideak eztabaidatu, argitu eta erabiltzea.

**Gotzon Egia**

*Administrazioko Euskara Teknikaria*

*Technician of the Basque Language  
in the Administration*